



## **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK**

Gure produktua kontsumitzen duten bezeroekin harremanetan egoteko, webgune bat sortuko dugu eta hemen, gure bezeroak zuzenean guri hitz egin ahalko digute gure telefono zenbaki eta gmail helbide baten bidez. Webgune honetan, produktua erosi aurretik jakin beharreko informazio guztia eskuragarri egongo da eta horrekin batera, gure bezeroak gure produktua kontsumitu eta gero beraien esperientzia transmititu ahalko digute eta hobekuntzaren bat bururatu bazaie guri komentatzeko aukera izango dute.

Aipatutako webgunea, ez da erosketak egiteko baliagarria izango, baina bai jakin ahalko dute produktua beraien etxeetatik gertu non erosi, mapa birtual baten bidez. Era berean, hasieran, Euskal Herrian gehienbat pentsatu dugu Superamara eta Bm supermerkatuekin lan egitea eta aurrerago, gure produktua beste supermerkatu askotara eramatea gustatuko litzaiguke, hura izango zen, hurrengo pausua. Bezeroen erosotasunari garrantzi handia emango diogu, azken finean, produktua haien hurbil izatea garrantzitsua da eta horregatik ahalik eta azkarren saiatuko gara beste supermerkatu batzuetara zabaltzen, Eroski adibidez. Azkenik, arrakasta handia duela ikusten badugu, naziora zabalduko dugu.